



**Ebazpena, 2021eko otsailaren 2koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendariarena, zeinaren bidez behin-behinean ebazten baita 2020/2021 ikasturtean Prestakuntzan eta Hezkuntza Berriztatzen Laguntzeko Zentroetan (Berritzeguneak eta Ingurugelak) hainbat lanpostu zerbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko esleipenean betetzeko deialdia.**

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko Zuzendariaren 2020ko abenduaren 14ko Ebazpenaren bidez, deialdia egin zen 2020/2021 ikasturtean Prestakuntzan eta Hezkuntza Berriztatzen Laguntzeko Zentroetan (Berritzeguneak eta Ingurugelak) hainbat lanpostu zerbitzu-eginkizunetan betetzeko edo behin-behineko esleipenerako.

Era berean, deialdi horren zazpigarren artikuluekin bat etorritik, Balorazio Batzorde Orokorreko buruak deialdi honen ebazpen-proposamen bat igorriko dio Langileak Kudeatzeko Zuzendariari, azken horrek deialdiaren behin-behineko ebazpena har dezan, onartutako eta baztertutako langileekin eta hautagaiei emandako puntuazioarekin.

Horrela, balorazio-batzordeak egindako proposamena aztertu ondoren, honako hau

#### **EBAZTEN DUT**

**Lehena.**- Hezkuntza Sailaren webgunean argitara ematea I., II., III. eta IV. eranskinetan, hurrenez hurren, jasotako esleipenen, bazterketen, puntuazioen eta lan-poltsako kideen behin-behineko zerrenda.

**Bigarrena.**- Interesdunek hiru egun balioduneko epean egin ahal izango dituzte erreklamazioak, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko otsailaren 2an

Blanca María Guerrero Ocejo  
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

